

Ebazpena: R14/2023

Espedientea: 30/2015 eta metatuak: 31/2015, 41/2017 eta 74/2021

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 17an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEAk) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita TPPSAU zergapekoaren 2008-2016 aldiko BEZaren ordainketaren eta 2008-2010 eta 2014-2016 aldietako sozietateen gaineko zergaren ordainketaren proportzioa zehaztea. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, espediente-zenbaki hauekin: 30/2015, 31/2015, 41/2017 eta 74/2021

I. AURREKARIAK

- 1.-** TPPSAUk egoitza fiskala Araban du, eta 2007tik 7.000.000 eurotik gorako eragiketa-bolumena izan du, eta 2012ra arte AFARI bakarrik ordaindu zion zerga.
- 2.-** Sozietateak PE eta PVCzko hodiak fabrikatzen ditu Arabako instalazioetan, bai eta horien ekoizpena eta PISAU merkataritza-talde bereko sozietateak fabrikatutako antzeko produktua merkaturatzen ere.

- 3.-** AFAk egindako ikuskapen baten ondorioz, BEZari (2008-2011 aldikoa) eta Sozietateen gaineko Zergari (2008-2010 aldikoa) buruzko akta bakarrak hasi ziren, Estatuari ordainketa-proporzioa egotzita.
- 4.-** Eragiketa-bolumenaren proportzioarekin ados ez zegoenez, ZAEAk inhibizio-errekerimendu bana egin zuen, eta AFAk atzera bota zituen bi-biak.
- 5.-** ZAEAk 30/2015 eta 31/2015 gatazkak planteatu zituen legezko epean eta moduan, 2008-2011 aldiko BEZari eta 2008-2010 aldiko Sozietateen gaineko Zergari buruzko akta bakarren ondoriozko zerga-ordainketaren proportzioaz.
- 6.-** AFAk egindako egiaztapenen ondorioz, zergapekoa Estatuari zergak ordaintzen hasi zen, eragiketa-bolumenaren proportzioan, aktetatik ateratako irizpideen arabera.
- 7.-** 2016ko urtarrilaren 25ean, ZAEAk zergapekoaren eragiketa-bolumena egiaztatzeko eskatu zuen, 2012-2013 aldiko BEZari lotuta, eta aurreko urteetako aktetatik ateratako irizpideak berretsiz erantzun zitzaion.
- 8.-** 2017ko uztailaren 27an, ZAEAk inhibizio-errekerimendua egin zuen, baina AFAk atzera bota zuen, eta hilabeteko epean 41/2017 gatazka planteatu zen.
- 9.-** 2019ko urtarrilaren 25ean, ZAEAk zergapekoaren eragiketa-bolumena egiaztatzeko eskatu zuen, BEZari eta Sozietateen gaineko Zergari (2014-2016 aldikoa) lotuta, eta berriz ere aurreko urteetako aktetatik ateratako irizpideak berretsiz erantzun zitzaion.
- 10.-** 2021eko abuztuaren 21ean, ZAEAk inhibizio-errekerimendua egin zuen, baina AFAk atzera bota, eta hilabeteko epean 74/2021 gatazka planteatu zen.

11.- 2021eko azaroaren 26an gatazkak metatzea erabaki zen, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu dira.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Prozedurak metatzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua aplikatzekoa da 1760/2007 Errege Dekretuaren

bidez onartu zen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta hauxe dio:

Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

3.- Gatazkaren gaia

Bi administrazioak ados daude; alegia, zergapekoak Araban fabrikatzen dituen produktuaren salmentak foru-lurraldean kokatuta daude.

Ez daude ados ordea, TPPSAUK PISAUK lurralde erkidean fabrikatutako produktuen salmentarekin. Aipatu produktuak bezeroari bidaltzen zaizkio ekoizlearen instalazioetatik, Arabatik igaro gabe.

Salmenta horiei dagokienez, ZAEAk uste du Araban kokatuta daudela, saltzaileak bertan dituelako merkaturatze-jarduera egiteko baliabide materialak eta giza baliabideak; AFaren ustez, berriz, lurralde erkidean kokatuta daude, bezeroarengana eramateko garraioa hasten den lekua delako.

4.- Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen 2/2018 Ebazpenarekiko lotura (17/2012 gatazka)

PISAU eta TPPSAU sozietateak oso-osorik dira PFSLrenak.

Biek ala biek PE eta PVCzko hodiak fabrikatzen dituzte, eta PISAUren egoitza fiskala eta fabrika-instalazioak Malagan daude.

Produktu bererako bi lantegi izatearen arrazoia garraio-kostuen garrantzi handia da (bezeroaren esku jartzeko). Ondorioz, bi fabrika-instalazio daude, elkarrengandik oso aparte geografikoki, bezeroei hurbileko irizpide baten arabera erantzun ahal izateko.

Hala ere, bezeroak kauzio-aseguruek bermatutako arriskua gainditzen duenean, merkataritza-taldeko beste erakundeak fabrikatutako produktua ematen zaio, geografikoki oso aparte egonagatik.

Horregatik, batzuetan, PISAUK TPPSAUK fabrikatutako produktua merkaturatzen du, eta alderantziz.

17/2012 gatazkan (2/2018 Ebazpena) jada planteatu zen Estatuko eta foru-administrazioaren arteko desadostasuna PISAUK 2008-2011 aldian egin zituen salmenten kokapenaz, TPPSAUK fabrikatutako produktuei zegokienez.

Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen 2/2018 Ebazpenak egiaztatutzat jo zituen inguruabar hauek:

a.- Bi sozietateak enpresa talde berekoak dira, jarduera berdinean aritzen dira, eta administratzaile bakarra eta ahaldunak partekatzen dituzte.

b.- Bi-bien sistema informatikoak elkar konektatuta daude, eta ekoizpenaren eta salmenten kontrolerako ERP sistema informatiko berbera partekatzen dute. Bi sozietateek webgune bera dute.

c.- Taldearen merkataritza-politika da bezeroei arreta ematea produktuaren garraiorako gastua murriztearen irizpideari jarraituta; izan ere, gastu hori da bere kostuen egiturako kosturik handienen artean hirugarrena. Horregatik, oro har, merkatua lurraldeka banatzen da.

d.- TPPSAUren merkataritza-eginkizunak (bezeroekiko harremana, eskaintzen negoziazioa eta eragiketen itxiera) merkataritza-zuzendariak egiten ditu, eta hizpide den epealdian eginkizun hori besteren konturako lan-harremana daukaten edo eduki duten sei langilek egin dute.

PISAUK, berriz, plantillako saltzaile bat dauka; hark lehen azaldu diren merkataritza-eginkizunak egiten ditu ekialdeko Andaluzian, eta eginkizunen aldetik TPPSAUko zuzendariaren mendean dago.

TPPSAUko langileek ordainsari aldakorra jasotzen dute enpresa horren salmentako komisiogatik. Hor sartzen dira esku hartu duten salmentak, bezeroarentzako fakturazioa TYPPk nahiz PISAUK egin.

Kanpoko bi komisiiodun partekatzen dituzte; horiek mendebaldeko Andaluzia eta Espainiako ekialdeko kostaldea artatzen dute, eta gainera, beste komisiiodun bat daukate Frantzian.

e.- Ahaldunetako batek bi sozietateetako salgaien hornidura jarraituko kontratuak sinatzen ditu.

f.- Merkatutzeko eragiketei dagokienez, bezeroaren eskaria jasotakoan, garraio-kostuak murrizten dituen fabrikari ekoizten da eta, orokorrean, entrega-albarana egiten da, eta lantegi-ustiaketaren titular den sozietateak egiten du faktura. Hala ere, bezeroak hurbiltasun geografikoarengatik dagokion sozietatearekiko kreditu-muga gainditzen duenean, albarana eta

faktura beste sozietate batek egiten ditu; hala, kredituaren arriskua beste sozietatearen aseguru-konpainiak estaltzen du.

Hau da, PISAUK bezero bati kreditu gehiago ezin badio eman bezero horrek bere aseguru-etxeak emandako kreditua gainditu duelako, bezeroaren kreditu-arriskua TPPSAUri eskualdatzen zaio; hala, produktua Malagan fabrikatzen da eta fabrika horretatik garraiatzen da, baina albarana eta azken bezeroarentzako faktura TPPSAUren izenean egiten dira.

Eta alderantziz, TPPSAUK bezero bati kreditu gehiago ezin badio eman bezero horrek bere aseguru-etxeak emandako kreditua gainditu duelako, bezeroaren kreditu-arriskua PISAUri eskualdatzen zaio; hala, produktua Lantaronen fabrikatzen da eta fabrika horretatik garraiatzen da, baina albarana eta azken bezeroarentzako faktura PISAUren izenean egiten dira.

Arrazoi horregatik, fabrikazioa egin duena ez den beste sozietate batek egiten badu faktura, komisiiodunen komisia fakturazioa egin duen sozietateari fakturatzen zaio, ez fabrikazioa egin duenari.

Hori horrela, aipatu 2/2018 Ebazpenak honakoa erabaki zuen: Araban kokatzea PISAUren salmentak –TPPSAU fabrikatutako produktuak–, ulertzen baitu Araban dituela eskura, jabe gisa ez bada ere, talde ekonomikoaren instalazioak eta langileak merkaturatze-lana egiteko, eta, gainera, funtsezkoa da salgaien kokapena, garraioaren kostua kontuan hartuta.

Ebazpen hau irmoa da.

5.- Arbitraje Batzordearen jarrera

AFaren aktak eta ZAEAREN txostenak aztertuta, eta alderdiek aurkeztutako frogak eta argudioak kontuan hartuta, ondoriozta daiteke kasu honetan 17/2012 gatazkako inguruabar berberak aplikatu behar direla, baina alderantziz; ondorioz, 2/2018 Ebazpena *mutatis mutandis* aplikagarria da, eta, horri esker, ondoriozta daiteke TPPSAUK egindako salmentak, PISAUK fabrikatutako produktuei dagokienez, lurralde erkidean kokatuta daudela.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea TPPSAUK egindako salmentak, PISAUK fabrikatutako produktuei dagokienez, lurralde erkidean kokatuta daudela.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta TPPSAUri jakinaraztea.